



Hilabeteko aktualitatea:



Berritasunez beteriko sartzea

Baratzegintzari buruzko proiektu esperimental baten kariatara, Sarde Sardexka elkarteari lur bat uztea onartu du Itsasuko Herriko Etxeak. Haurtzaindegia eta eskolen auzoan kokatua, gereziaren zaintza baratzearen oinetan, emeki emeki antolatua izanen da, interesatua den hezkuntza egituren eta biztanleen laguntzarekin. Azkenean, eremu hau ere publiko ezberdinendako elkargune eta aktibitate gune bat izanen da.

Berri on bat sekulan bakarrik iristen ez denez, Herriko etxeak bulego txiki bat eskaintzen dio Sarde Sardexka elkarteari, lurraren eremu berean. Aldaketa handia Sarde Sardexkako lan taldearentzat !

Hilabeteko hitzorduak :

• Sarde Sardexkak antolatuak :

Ostirala 10/06	Ezpeleta Pascale-n eihera	Ezagutza gaualdia « Euskal Herriko erle beltza » (20:00 etatik aurrera) : Mikela Untsain-ekin topaketa (Azkaineko Patinenea baserria), ezti jastaketa, askaria	Publikoa : Helduak / erreserba egin (Hello asso webgunean)	Prezioa : 8€ - 12€ lagun bakoitz
-------------------	---------------------------------	---	--	-------------------------------------

• Beste gertakariak :

Larunbata 09/30	Gasna feria Laruns	SSka elkartearen animazioa (goizean) : Ardi gasnak jastatzearen hastapena	Denentzat / Sartzea urririk
Igandea 01/10	Euskal Pastizaren pesta Kanbo	SSka elkartearen animazioa (arratsaldean) : « Jastakina ene Antton maitea » maletaren jokoak	Denentzat / Sartzea urririk
Larunbata 07/10	Prentsaketa Hendaia / Abadiako fruitu baratzean	SSka elkartearen animazioa (arratsaldean) : Pomologiaren hastapena	Denentzat / Sartzea urririk
Igandea 08/10	Euskal Herria Burujabe Baiona	SSka elkartearen animazioa (arratsaldean) : « Jastakina ene Antton maitea » maletaren jokoak	Denentzat / Sartzea urririk

Anuntzio ttipiak :

« Lurraldea helburutzat » : Diru laguntza parte hartzaileak segitzen du ! Proiektuak aintzina segitzen du, eta zuen laguntzaren beharra dugu ukaiten ditugun diru laguntzen osatzeko. Proiektuaren xehetasun guziak Helloasso webgunean. Milesker zure laguntzaz !

